

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

#### **84/2020 Foru Agindua, martxoaren 3koa, arautzen duena arrantza kontinentalaren aprobetxamendua Arabako Lurralde Historikoan 2020-2021 denboraldian**

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak, Euskal Herriaren autonomia estatuarenak, bere 10.10 artikuluan xedatzen duenez "Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak bakarreko eskumena du honako gai hauetan: ... 10. Barne-uretako arrantza, itsaski-bilketa eta arrain-hazkuntza, ehiza eta ibai eta aintziretako arrantza."

Azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, autonomia erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanenak, bere 7.b artikuluan xedatzen duenez "Lurralde Historikoei dagokie erakunde erkideetatik datozen arauak garatzea eta betearaztea arlo hauetan: ... 3. Arrantza kontinentalaren eta ehizaren aprobetxamenduaren araubidea"

Eusko Jaurlaritzaren 34/1985 Dekretuaren eta Arabako Foru Aldundiaren 884/1985 Dekretuaren bidez (biak martxoaren 5ekoak), Arabako Foru Aldundiari eskumena eman zitzaion ibaietako arrantza arloa araubidez garatzeko.

Abenduaren 13ko 42/2007 Legeak, natura ondare eta biodibertsitatearenak, zeina oinarritzakoa baita haren 1. artikuluan eta bigarren azken xedapenaren arabera, hau ezartzen du 65. artikuluan:

1. Ehizatu eta ur kontinentaletan arrantzatu ahal izango diren espezieak autonomia-erkidegoek zehazten dituztenak bakarrik izango dira, eta deklarazio horrek inola ere ezingo die eragin Babes Bereziko Espezieen Zerrendan sartutako espezieei edo Europar Batasunak debekatuakoei.

2. Nolanahi ere, ehiza eta arrantza kontinentalak arautzean, bermatu egingo da jarduera horietarako baimenduta dauden espezieak kontserbatzea eta sustatzea; xede horietarako, autonomia-erkidegoek zehaztu egingo dute zein lursail eta uretan ehizatu eta arrantzatu ahal izango den eta zein egunetan izango den haizu espezie bakoitzarentzat.

1942ko otsailaren 20ko Legeak (ibai arrantzaren sustapena eta zaintza arautzen duena) eta 1943ko apirilaren 6ko Dekretuak (Ibai Arrantzaren 1942ko otsailaren 20ko Legea gauzatzeko Arautegia onesten duena) partez indarrean jarraitzen dute Euskal Autonomia Erkidegoan.

Lurralde historikoei dagokienez, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbatzeko legearen testu bategina onesten duenak, bere 66. artikuluan xedatzen duenez, "foru-organo eskudunek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean natura-baliabideen antolamenduan eta naturaren kontserbazioan eskumena duen sailarekin elkar hartuta, bakoitzak bere lurralde-eremurako, arrantza-aprobetxamenduen araudia onartuko dute urtero. Jarduera horiek egin daitezkeen urak ezarriko dituzte, bai eta espezie bakoitzarentzako arrantza-garaia eta ur kontinentaletan arrantzatzeko modu eta metodoak ere". Urtean urteko foru aginduak ezartzen du arrantza kontinentalaren aprobetxamenduaren araudia, zeina arau tresna nagusia baita arrantza espezieen aprobetxamendu antolaturako.

Bestalde, otsailaren 9ko Diputatuen Kontseiluaren 14/2016 Foru Dekretuak, Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onestekoak, zeina abuztuaren 3ko Gobernu Kontseiluaren 45/2017 Foru Dekretuak aldatu baitu, Mendi Zerbitzuari esleitzen dizkio besteak beste, honako eginkizun hauek: baso flora eta fauna antolatzea, kontserbatzea, kudeatzea eta sustatzea, eta, Ehiza eta Arrantza Atalaren bidez, ehizarako eta arrantzarako debekualdiei buruzko agindu orokorrak eta Sailaren eskumeneko gaiei buruzko araudi osagarria aztertzea eta proposatzea.

Aurrekoa oinarri hartuta, Nekazaritza Sailak, dagokion urteko Foru Aginduaren bidez, Araban arrantza kontinentalara arautzeko araudia ezartzen du; azkena martxoaren 7ko 107/2019 Foru Agindua izan zen, Arabako Lurralde Historikoan arrantza kontinentalaren aprobetxamendua arautzeko araudia onetsi zuena 2019-2020 denboraldirako.

Kontuan hartuta arrantza kontinentalari kirol jarduera dela eta izaera askotako jende askok egiten duela eta, sarritan, denboraldi bakoitzean ALHAOn argitaratzen den aginduaren testua erabiltzen dutela aplikagarri den araudia ezagutzeko, egokiago irizten da osorik batzea 2020-2021 denboraldian arrantza arautuko duen aginduaren testu osoa, baita denboraldi honetan aplikagarri diren aldaketak ere, errakuntzak eta hutsak ekar ditzakeen horietako bakoitza banaka idaztea baino; horrela, testua errazago irakurriko da eta hobeto ulertuko da eta osotasunean interpretatu ahalko da.

Foru agindu hau izapidetzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, jasotako araupetze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 3. artikuluan jasota baitaude. Foru dekretu horrek hauexek 3. artikuluan jasota baitaude. Foru dekretu horrek hauexek onesten ditu: izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura, araupetze eta genero eraginaren txostenak egiteko gidak eta aragintza teknikarako jarraibideak. Horiek horrela, aurrekarietan nahikoa justifikatu da premia dagoela Arabako arrantza kontinentalara beste era batera arautzeko; gainera, arauketa jardun neurritsua izango litzateke, beharrezko gutxienekora mugatzen delako lortu nahi den helburua lortzeko; hain zuzen ere, Arabako Lurralde Historikoan 2020ko kanpainarako arrantza arautzen duen araudiaren ikuspegi artikulatua, bakarra, osatua eta eguneratua.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

Eraginkortasun printzipioari dagokionez, planteaturiko arauketak, daukan izaeragatik, ez du eragiten administrazio zama osagarririk eta beharrezkoak ez direnik administratuentzat, ezta baliabide publiko gehiago kontsumitzea ere. Gainera, gardentasun printzipioa bermatu da, arau xedapena egiterakoan entzunaldiko eta jendaurreko informazioko izapidea bete baita, eta agindu da betiere ALHAOn argitaratu dadila onespena eman bezain laster.

Arabako Foru Administrazioaren Kontsulta Batzordeak, 2020ko otsaialaren 25eko bilkuran, emandako irizpena kontuan izanik eta haren ondorioak onartuz.

Arrantzako Lurralde Batzordea entzun da, aginduzko txostenak aztertu dira; horregatik eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan 2020-2021 denboraldian arrantza kontinentalaren aprobetxamendurako araudia, eta hura denboraldi berriko eskakizunetara eta 2019ko abenduaren 5ean bildutako Arrantzako Lurralde Kontseiluan adostutakora egokitzea, 2020-2021 kanpainan aplikatzeko. Testu osoa, aipatu diren aldaketak barne, eranskin gisa erantsiko zaio foru agindu horri.

Bigarrena. Foru agindu hau indarrean sartuko da ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean eta, ondorioz, indargabetu egingo da 107/2019 Foru Agindua, martxoaren 7koa, Arabako Lurralde Historikoan 2019-2020 denboraldian arrantza kontinentalaren aprobetxamendurako araudia onesten duena.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 3a

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**

**ERANSKINA****ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN, 2020/2021 DENBORALDIAN, KIROL  
ARRANTZAREN TRESNAREN BIDEZ UR KONTINENTALETAN ARRANTZA  
KONTINENTALAREN APROBETXAMENDUA ETA ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILE  
ZEHAZT BATZUEN KONTROLA ARAUTUKO DUEN ARAUDIAREN TESTU OSOA****1. ARTIKULUA. ARRANTZATU DAITEZKEEN ESPEZIEAK****1.1. Honako hauek dira arrantzatu daitezkeen espezieak:**

Amuarrain arrunta (*Salmo trutta*).

Barbo arrunta (*Luciobarbus graellsii*).

Loina (*Parachondrostoma miegii*).

Tenka (*Tinca tinca*).

Ezkailua (*Phoxinus phoxinus*).

Urre-arraina (*Carassius auratus*).

1.2. Foru Agindu honetako 1.1 eta 2.1 artikuluetan jasota ez dauden espezieak ezingo dira arrantzatu Arabako Lurralde Historikoan.

1.3. Arrantzatu ezin daitezkeen bertako espezie bateko aleren bat nahi gabe harrapatzen bada, berehala bueltatu beharko da uretara, askatzerakoan ahalik eta kalterik txikiena eginda.

**2. ARTIKULUA. ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEEN KUDEAKETA, KONTROLA ETA DEUSEZTATZEA**

2.1. Adierazten da arrantza espezie exotiko inbaditzaile bezala katalogatutako arrain eta oskoldun espezieak kontrolatu, kudeatu eta deuseztatzeko bide izango dela baldin eta espezie horiek 639/2013 Errege Dekretuan jasota badaude eta 42/2007 Legea indarrean jarri baino lehenago sartuak badira. Espezie horiek harrapatzeko, agindu honetan ematen diren xedapenak bete beharko dira (6. artikulua). Espezie horiek ondoren zerrendatzen dira:

Amuarrain ortzadarra (*Oncorhynchus mykiss*).

Alburnoa (*Alburnus alburnus*).

Perka amerikarra (*Micropterus salmoides*).

Karpa (*Cyprinus carpio*).

Lutxoa (*Esox lucius*).

Pazifikoko karramarroa (*Pacifastacus leniusculus*).

Karramarro gorria (*Procambarus clarkii*).

2.2. Euskal Herrian legez arrantzan egiteko nahitaezko agiriak (foru agindu honetako 9. artikulua) dituen edonork espezie horien gaineko kontrol jardunak egin ahal izango ditu, foru agindu honetan ezartzen diren denbora eta leku mugetara, prozedura, metodo, beita eta apeu-  
etara moldatuz.

**3. ARTIKULUA. ALDI, EGUN ETA ORDU BAIMENDUAK****3.1. Aldi baimenduak:**

2020/2021 denboraldian salmonidoak harrapatzeko aldi baimendua, bai ur libreetan bai araubide bereziko uretan, 2020ko martxoaren 19tik ekainaren 30era artekoa izango da, bi egun horiek barne, amuarrainak hil gabe harrapatzeko Kuartangoko arrantza esparruan izan ezik. Esparru horretan, aldi baimendua 2020ko apirilaren 15etik ekainaren 15era artekoa izango da, biak barne.

Ibai zati libreetan ziprinidoak harrapatzeko aldi baimendua 2020ko martxoaren 19an hasi eta 2021-2022 arrantza denboraldiaren hasierara arte izango da.

Arrain exotiko inbaditzaileak kontrolatu eta deuseztatzeko ezarri diren ibai zatietan (Arabako arrantza baimenduko ibai zatiei buruzko I. eranskinean jasoak), aldi baimendua haiekin gainjartzen diren salmonido edo ziprinido arrantzarako ibai zatietako berbera izango da.

Karramarro seinaleduna eta karramarro gorria harrapatzeko aldi baimendua, foru agindu honen III. eranskinean haiek kontrolatu eta deuseztatzeko ibai zatietarako zehazten dena izango da.

### 3.2. Egun baimenduak:

Oro har, eta espezie talde bakoitzaren arrantza denboraldiaren barruan, asteko egun guztietan egin ahal izango da arrantzan, jaiegunak ez diren astearteetan izan ezik. Ondoko salbuespen hauek izango dira: Amuarrain arrantzako esparruetan, arrantzan egin daiteke foru agindu honen II. eranskinean esparru bakoitzerako zehazten diren egunetan. Salbuespen gisa, beste arrantza egun batzuk zehaztu ahal izango dira esparru bakoitzerako zehaztutako epearen barruan, arrantza lehiaketa ofizialak egiteko helburuz.

b) Ziprinidoen arrantza, ibai zati libreetan arrantzarako aldi baimenduko egun guztietan egin ahal izango da.

c) Arrain exotiko inbaditzaileak kontrolatu eta deuseztatzeko ezarri diren ibai zatietan (foru agindu honen I. eranskina), beraiekin gainjartzen diren salmonido edo ziprinido arrantzarako ibai zatietan arrantzan egin daitekeen egun beretan harrapa daitezke espezie horiek.

d) Karramarroa kontrolatu eta deuseztatzeko ibai zatietan, egun baimenduak foru agindu honen III. eranskinean ibai zati bakoitzerako zehazten direnak izango dira.

### 3.3. Ordu baimenduak.

Eguzkia irten eta sartu artekoak dira arrantza ordu baimenduak, Institutu Geografiko Nazionalaren egunsenti eta iluntze almanaka ofizialetik hartuak (<http://www.fomento.gob.es/salidapuestasol/2020/Vitoria-2020.txt> eta <http://www.fomento.gob.es/salidapuestasol/2021/Vitoria-2021.txt>).

Karramarroak kontrolatu eta deuseztatzeko ordu baimenduak hauek izango dira:

a) Uztail eta abuztuan: 13:00etatik 21:00etara.

b) Iraila: 13:00etatik 20:00etara.

## 4. ARTIKULUA. HARRAPAKETAK ETA KOPURUAK

4.1. Salmonidoen arrantzarako ibai zati libreetan, salmonidoak heriotza gabeko modalitatean baino ezingo dira arrantzatu; hortaz, berehala botako dira atzera uretara haietan harrapatzen diren amuarrain arrunt guztiak, askatzean ahalik eta kalte txikiena eginez.

4.2. Ziprinidoak harrapatzeko ibai zati libreetan, berehala botako dira atzera uretara haietan harrapatzen diren amuarrain arrunt guztiak, askatzean ahalik eta kalte txikiena eginez.

4.3. Oro har amuarrain arrunta (*Salmo trutta*) espezieko hilaraz daitekeen ale kopurua, hori baimenduta dagoen arrantza esparruan, gehienez ere baimen bakoitzeko bi ale izango da. Kopuru horretara iritsitakoan arrantzatzeari utzi beharko zaio. Harrapatutako aleak aukeratzea galarazteko asmoz, legezko luzera duen amuarrain bat harrapatu ondoren ezin izango da berriz uretara bota, egun guztian egiten ari den arrantza modalitate bakarra heriotza gabeko arrantza izan ezean.

4.4. Hilarazitako amuarrain arrunt eta karramarroak saskian, zakuan, poltsan... eraman beharko ditu arrantzaleak, eta ezin izango ditu ibilgailuan sartu arrantza eguna bukatu arte.

4.5. Foru agindu honetako 1.1 eta 2.1 artikuluen arabera arrantzatu daitezkeen gainerako arrain eta karramarro espezieetarako ez da harrapaketa kopururik ezartzen.

## 5. ARTIKULUA. NEURRIAK

5.1. Arrantzatu daitezkeen espezieen gutxieneko neurriak ondoko hauek dira:

Amuarrain arrunta (*Salmo trutta*): 22 cm.

Barbo arrunta (*Luciobarbus graellsii*): 18 cm.

Tenka (*Tinca tinca*): 15 cm.

Ezkailua (*Phoxinus bi gerri*): 6 cm.

Loina (*Parachondrostoma miegii*): 8 cm.

Urre-arraina (*Carassius auratus*): ez da gutxieneko neurririk ezartzen.

5.2. Amuarrain arrunta (*Salmo trutta*) gehienez ere 35 cm luze izan beharko da. Gainerako espezieentzat, ez da ezartzen gehieneko luzerarik.

5.3. Arrainaren luzera furkala hartuko da kontuan, hau da, buruaren aurreko muturretik isats hegatsaren edo isats hedatuaren erdi puntura neurtutako luzera.

5.4. Uretatik atera eta berehala botako dira bertara, ahalik eta kalte txikiena eginez, aurretik ezarritakoak baino luzera txikiagoa edo handiagoa duten ale guztiak.

5.5. Ez da ezartzen gutxieneko edo gehieneko neurririk 630/2013 Errege Dekretuak barnean hartu eta foru agindu honetako 2.1 artikuluan jasotzen diren espezie exotiko inbaditzaileentzat.

## 6. ARTIKULUA. ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEEN ESPAINIAKO KATALOGOA ARAUTZEN DUEN 630/2013 ERREGE DEKRETUAREKIN LOTURIKO BERARIAZKO NEURRIAK

6.1. 2.1 artikuluan adierazten diren espezie exotiko inbaditzaileen kontrola eta deuseztapena, haietako bakoitzarentzat zehaztutako eremuetan bakarrik egingo dira (foru agindu honen I. eranskina). Espezie horietarako ez da ezartzen gutxieneko neurririk ez harrapaketa kopururik, eta harrapatu eta berehala hilarazi beharko dira. Hala ere, baimentzen da espezie horien ale hilak edukitzea eta garraiatzea, dela autokontsumorako, dela haiek natura ingurunetik desagerarazteko toki apropos batean uzteko.

6.2. Amuarrain arrantzako esparruetan, espezie exotiko inbaditzaile baten aleren bat harrapatzen bada, nahitaezkoa izango da egitate hori adieraztea horretarako gaitutako orrian.

6.3. Harrapa daitezkeen ibai karramarroaren espezieak, harrapatu ondoren, ez dira sekula uretara itzuliko. Harrapaketa lekutik alde egin baino lehen hil beharko dira, eta betiere beste edozein zonatarra joan aurretik, baita ibai berean bada ere. Harrapatutako aleak uretatik kanpo edukitze hutsarekin ez da ulertuko karramarroak hil direnik.

6.4. Arabako Lurralde Historikoan egiten diren arrantza txapelketa guztietan, kanpoko espezie inbaditzaileen aleak harrapatzen direnean, nahitaezkoa izango da ale horiek hilaraztea, txapelketa heriotza gabeko arrantza modalitatekoa bada ere.

## 7. ARTIKULUA. ARRANTZA TRESNAK ETA ELEMENTU LAGUNGARRIAK

7.1. Arrainak harrapatzeko arrantza tresnak:

a) Kanabera da arrainak harrapatzeko baimendutako arrantza tresna bakarra.

b) Orokorrean, lurralde historikoko ibai eta uretan kanabera bakar bat onartzen da arrantzale bakoitzeko.

c) Albina, Maroño, Sobron, Uribarri Ganboa eta Urrunagako urtegietan, baita ziprinidoen arrantzarako ibai zati libreetan ere, arrantzale bakoitzak bi kanabera erabil ditzake, baina biak haren eskueran egon beharko dira.

7.2. Karramarro seinaledunak eta karramarro gorriak harrapatzeko tresnak:

a) Espezie horiek harrapatzeko arrantza tresna bakarra dago baimenduta: 30 zentimetroko diametroko erretela, gehienez bi eraztun dituena, eta ixteko gailurik gabea.

b) Gehienez ere sei sare-saski baimentzen dira arrantzale eta baimen bakoitzeko. Sare-saskiak ipintzeko, gehienez ere ibaiertzaren 30 metro har daitezke, beste arrantzale batzuk hurbil badaude eta beraien artean adostasunik ez badago sare-saskiak tartekatzeko.

c) Salabardoak behar bezala identifikatuta egongo dira, baimenaren titularraren izen-abizenekin.

d) Agintari eskudunak konfiskatu egingo ditu identifikaziorik gabeko salabardoak.

7.3. Elementu lagungarriak.

a) Orokorrean, salabardo izeneko tresna erabili ahal izango da, baina bakar-bakarrik kanaberarekin harrapatutako arrainak uretatik ateratzeko lagungarri moduan.

## 8. ARTIKULUA. BEITAK ETA AMUAK

8.1. Arabako Lurralde Historikoan amuarrainaren arrantzarako esparruetan, berdin du zein motatako arrantza egiten ari den, eta salmonidoen arrantzarako ibai zati libreetan, onartutako beita bakarrak heriotza gabeko beita artifizialak dira, edozein mota edo muntaiatakoak, baldin eta amu bakar bat eduki eta horrek "garranga" izeneko zatirik ez badauka.

8.2. Ontzitik arrantzan egiteko modalitatean (xaxiango arrantza edo kazako arrantza), gutxienez 4 cm luzeko pala duten koilaratxoak baino ezin izango dira erabili.

8.3. Pazifikoko karramarroak eta karramarro gorriak harrapatzeko, amu hilak soilik erabiliko dira (eta inoiz ez deskonposizioan daudenak), eta debekatuta dago horien hondarrak ibaiertzetan uztea edo horiek uretara botatzea. Arrantzaldia amaitutakoan, hondar horiek edukiontzietan utzi, edo erabili dituenaren etxera eramane beharko dira.

8.4. Oro har, debekatzen da:

a) Arrain bizi edo hilak beita natural gisa erabiltzea.

b) 630/2013 Errege Dekretuaren eraginpean dagoen kanpoko edozein espezie inbaditzaile beita moduan erabiltzea.

c) Beita natural gisa tokian tokiko faunakoak diren intsektu edo beste ornogabeen arrautzak, larbak, pupak, ninfak edo imagoak erabiltzea.

d) Asticot deritzon harra eta antzekoak beita natural moduan erabiltzea, bai eta osagai erakargarriak, usaindunak eta zaporedunak dauzkaten beita guztiak ere. Era berean, debekatuta dago gazta, haragi eta antzekoen masa nahasiak erabiltzea amu gisa, bai eta urak beitatzea ere arrantzan hasi baino lehen edo arrantzaleak jardunean dirauen bitartean.

e) Harian lastadun ninfak erabiltzea beita moduan.

8.5. Salbuespenak:

a) Albina, Maroño, Sobrón, Uribarri Ganboa eta Urrunaga urtegietan baimena ematen da arrain hilak erabiltzeko beita natural gisa. Muga hauek jartzen dira orobat, baldin eta ur gezetako espezieetako arrainak badira:

a.1. Foru agindu honen 1.1. artikulua arabera arrantzatu daitezkeen espezieen zerrendako arrain espezieak izatea.

a.2. Haien neurria foru agindu honetako 4. artikuluan ezarritako gutxieneko neurriaren berdina edo handiagoa izatea.

b) Karramarroa kontrolatu eta deuseztatzeko ibai zatietan, baimenduta dago arrain hilak beita natural moduan erabiltzea, aurreko idatz zatian ezarritako muga berberekin.

c) Sobron, Uribarri Ganboa eta Urrunagako urtegieta eta "kirol agertoki" deklaraturako eremuetan, baimentzen da urak beitatzea gazta, haragi eta antzekoen masa nahasiekin, baina arrantzan ari bitartean bakarrik, eta betiere uretako fauna eta landarediarentzat edo gizakientzat toxikoak ez diren produktuak erabiliz gero.

d) "Kirol agertoki" deklaraturako uretan, baimentzen da beita natural moduan asticot ize-neko harra edo antzekoak erabiltzea arrantza sutatzeko edo arrantzan egiten irakasteko jarduera ofizialak egitean.

8.6. Zuhurtasun printzipioari jarraituz, Sobrongo urtegian debekatuta dago hari txirikordatzko amu-hariak, estrimer apeuak eta arrain artifizialak erabiltzea.

## 9. ARTIKULUA. ARRANTZAN EGITEKO BEHARREZKOAK DIREN AGIRIAK

9.1. Eusko Jaurlaritzaren Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren urriaren 7ko 216/1997 Dekretuari jarraituz (EHAA, 203 zenbakia, 1997ko urriaren 23koa), hauexek dira Euskal Autonomia Erkidegoan ibai arrantza egiteko beharrezko agiriak:

a) Euskal Autonomia Erkidegoaren arrantzarako baimena.

b) Urteko tasa ordaindu dela egiaztatzen duen agiria.

c) Nortasun Agiri Nazionala, pasaporte, gidabaimena edo atzerritarren identifikazio zenbakia (AIZ).

9.2. Mugaturiko ibai zatietan amuarrain arrantzan aritzeko eta kontrol eta deuseztatzeko ibai zatietan karramarroak harrapatzeko, 9.1 artikuluan adierazitako agiriez gainera, beharrezkoa izango da, hurrenez hurren, amuarrain esparruko arrantza baimen egokia edo delako ibai zatian karramarroak kontrolatu eta deuseztatzeko baimena edukitzea, bai eta hori ordaindu izanaren agiria ere. Baimena pertsonala eta besterenezina izango da. Baimen horrek bakar-bakarrik egun jakin baterako eta amuarrain esparru edo kontrol eta deuseztatzeko ibai zati jakin baterako izango du indarra.

## 10. ARTIKULUA. ARRAINEN FAUNA BABESTEA

10.1. Arauzko 22 zentimetroak ez dituen amuarrain arrunt bat harrapatzen denean, amuarrinari ezin bazaio amua kendu kalte handia egin gabe, arrantza haria moztu eta arraina askatu egingo da.

10.2. Arrainak harrapatzean egiten zaizkien kalteak, ahal den neurrian, ahalik eta txikiak izan daitezen, "amua kentzekoa" erabiltzea gomendatzen da.

10.3. Honako debeku hauek ezartzen dira:

a) Uretan arrabalekuetan sartzea apirilaren 30era arte, berori barne.

b) Edozein baliabide erabilita harriz, egurrez edo beste material batez egindako oztopoak edo hesiak jartzea, edo ubideak edo ur etorriak aldaraztea, arrantza errazteko ala ez errazteko.

c) Elektrokutatze edo geldiarazteko tresnak, argi iturri artifizialak, lehegailuak eta gai pozoitsuak, lasaigarriak, erakargarriak edo uxagarriak erabiltzea.

d) Atzaparrak, kizkiak, hiruhortzak, krakoak, atxamartak, arpoiak, xederak, baheak, pertolak, otarreak, txingak, sareak, esku-sareak, tretzak, salabardoak, zurdak, itsatsitako amu-hariak eta antzeko tresnak erabiltzea.

e) Egitura zurrun eta iraunkorrekoak ez diren flotazio aparatuak erabiltzea, hala nola, egur sortak, baltsak, oholtzak, eta abar.

f) Arrainak eskuz harrapatzea eta arrainen babesleku diren harriak jotzea.

g) Su armez, aire konprimituz edo beste gas batzuez dabiltzan armez, uzaiz edo baleztaz arrantzan egitea.

#### 11. ARTIKULUA. AMUARRAINEN ARRANTZA ESPARRUA

Arabako Lurralde Historikoan 2020/2021 denboraldirako ezartzen diren amuarrain arrantzako esparruak, foru agindu honen II. eta III. eranskinetan adierazitakoak dira.

#### 12. ARTIKULUA. KARRAMARRO GORRIA KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIAK

Arabako Lurralde Historikoan 2020/2021 denboraldian karamarroak kontrolatu eta deuseztatzeko ezartzen diren ibai zatiak, foru agindu honen II. eta IV. eranskinetan adierazitakoak dira.

#### 13. ARTIKULUA. KIROL AGERTOKIA

13.1. Ziprinidoen arrantza sustatzeko eta ikasteko, kirol agertokia ezartzen da Zadorra ibaian, Langraiz Oka herritik igarotzean. Hona hemen horren mugak:

Goialdeko muga: Los Cañales izeneko oinezkoentzako pasabidearen aurriak.

Behealdeko muga: Sorribasko presa.

Luzera: 1,7 km.

Foru Agindu bidez, beste kirol agertoki bat ezar daiteke, edo hura lekuz aldatu.

13.2. Ziprinidoen kirol agertokian arrantza sustatu edo arrantzan egiten irakasteko jarduerak egiteko, Arabako Foru Aldundiaren Ehiza eta Arrantza Atalari baimena eskatu beharko zaio. Eskaera hori Euskal Herriko Arrantza eta Kasting Federazioaren bidez izapidetuko da.

13.3. Kirol agertokia osorik edo zati batean okupatuta dagoen egunak Euskal Herriko Arrantza eta Kasting Federazioaren web orrian ([www.fvpyc.org](http://www.fvpyc.org)) jakinaraziko dira, ekitaldia egin baino gutxienez bi egun lehenago. Egun horietan, kirol agertokia erabili ahal izango dute soilik arrantza sustatu edo arrantzan egiten irakasteko jardueran parte hartzen duten pertsonak, eta debekatuta dago beste edonork han arrantzatzea.

Arrantza sustatu eta arrantzan egiten irakasteko jarduerarik ez dagoen egunetan, edozein arrantzalek arrantzatu ahal izango du kirol agertokiaren zatian, jarduerari buruzko araudi orokorra betez.

13.4. Arrantza sustatzeko eta arrantzan egiten irakasteko jarduerak egin bitartean kirol agertokian harrapatzen diren ale guztiak, salbu eta Espainiako Espezie Exotiko Inbaditzaileen Katalogoa arautzen duen 630/2013 Errege Dekretuaren eraginpean dauden kanpoko espezie inbaditzaileenak, uretara itzuli beharko dira harrapatu eta berehala edo arrantza eguna bukatutakoan, bibak ontziren bat erabiliz gero.

13.5. Arrantza sustatu eta arrantzan egiten irakasteko jardueretan arrantzako tresna lagungarriak erabiltzeko, foru agindu honen 20.2.c artikuluan zehaztutakoa bete behar da.

#### 14. ARTIKULUA. DEBEKATUTAKO IBAI ZATIAK

14.1. Foru Agindu honen I. eranskinean arrantzan egin daitekeen ibai zati deklaratu ez diren ur masa guztiak debekatuta daudela iritziko da eta, beraz, horietan ezin daiteke inolako arrantza jarduerarik egin.

14.2. Debeekatuta dago edozein arrantza jarduera sarbide publikoa debekatuta duten lekue-tatik.

14.3. Berariazko baimenik izan ezean, debekaturik dago arrantza egitea ureztatzeko urmael eta ubideetan, bai eta zentral elektrikoetako eta errotetako ubideetan ere, eta, oro har, edozein deribazio ubidetan, iraunkorrak izan zein aldi baterako izan.

14.4. Debekatuta dago kanaberaz arrantzan egitea dike eta presetatik 25 m baino gutxiagora, horien bi alboetan, bai eta horietan finkatutako pasabide eta eskaletan ere. Debeku horrek ez die eragiten ziprinidoen eremuei eta espezie exotiko inbaditzaileak harrapatzeko tarteei, horietan presa oinean arrantzatu ahalko baita, betiere 10 m baino urrunago pasabide edo eskaletako bi alboetan.

14.5. Bide segurtasunagatik, debekatuta dago kanaberaz arrantzan egitea Ollerietatik Elosurako A-4404 toki errepidean, Urrunagako urtegiaren gainetik pasatzen den zubiaren bi kareletan.

#### 15. ARTIKULUA. MERKATURATZEA

Debekatuta dago amuarrain arruntak merkaturatzea, lurralde historiko honetako uretan egindako arrantzatik lortuak badira.

#### 16. ARTIKULUA. AMUARRAIN ESPARRUETAKO ARRANTZA BAIMENAK ETA KARRAMARROA KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO BAIMENAK

16.1. Eskaerak: Amuarrainak arrantzatzeko baimenak Arabako Foru Aldundian eskatuko dira (Probintzia plazako 5. zenbakian dauden bulego teknikoetan, beheko solairuan), edo AFaren egoitza elektronikoaren bidez, horretarako formalizatutako inprimakian eta nahitaezko agiriekin batera. Eskaerak egiteko epea honakoa da:

a) Amuarrain arrantzako esparruak: 2020ko abendua.

16.2. Zozketa. Amuarrainak arrantzatzeko baimenen zozketa Arabako Foru Aldundian egingo da. Zozketaren ordua eta eguna eskaera orrian zehaztuko da.

16.3. Prezioa. Amuarrainak arrantzatzeko eta karramarroak kontrolatzeko eta deuseztatzeko 2020rako onetsi diren baimenen prezioak, Arabako Lurralde Historikoko 2020rako aurrekontua gauzatzeko abenduaren 17ko 24/2019 Foru Arauan ezarritakoak izango dira.

16.4. Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik arrantza edo kontrola ezin egin daitekeenean baino ez da egongo eskubidea baimenengatik ordaindutakoa berreskuratzeko.

16.5. Egunean amuarrain esparruko edo karramarroa kontrolatu eta deuseztatzeko baimen bat bakarrik eduki daiteke.

16.6. Amuarrain arrantza hilgarriko esparruetarako baimena lortzen duena heriotza gabeko arrantzan aritu ahal izango da esparru horretan, hori baldin bada egun osoan egiten den arrantza modalitate bakarra. Horretarako, arrantzaleak baimena "heriotzarik gabeko arrantza"tzat identifikatzeko eskatuko du hura egiten diotenean.

#### 17. ARTIKULUA. AMUARRAIN ESPARRUETAKO BAIMENAK ZOZKETA BIDEZ BANATZEA

17.1. Arrantzaleek eskaera bana aurkeztu ahal izango dute bakarrik; gehiago aurkeztuz gero, kanpoan utziko dira.

17.2. Zozketa egin ondoren, ateratzen den zenbakitik aurrera esleituko dira aukera daitezkeen baimenen eguna eta ordua.

17.3. Eskaria nolakoa den eta zenbat baimen dauden banatzeko kontuan harturik, zozketan saridun izan denak baimen bat edo gehiago aukeratu ahal izango ditu. Baimen bat baino gehiago aukeratu ahal bada, horren erabilera baimenok esparruka banatuko da. Larunbat, igande eta jaiegunetan mugatuta egongo da.

17.4. Baimena pertsonala eta besterenezina da.

17.5. Baimenak telefonoz eman ondoren (zozketan jarritako hurrenkeraren arabera), baimen liberrik geratuz gero, Arabako Foru Aldundiaren bulego teknikoetan (Probintzia plaza 5, beheko solairua) jarriko dira salgai, bidezkotzat jotzen diren mugekin. Libre geratutako baimenak edozein pertsona gaituren eskura egongo dira, zozketan parte hartu izan ala ez.

17.6. Zadorra ibaiko amuarrain esparruan izan ezik, baimen guztietatik kopuru bat gordeko da arrantza esparruen inguruko herrietako arrantzaleentzat; baimenak telefonoz emateko al-dian arrantzale horiek baimenak ez badituzte eskuratzen, handitu egingo da baimenen poltsa orokorra. Pertsona horientzat erreserbatutako baimen kopurua, ezarritako epearen barruan jaso eta inguruko herrietako arrantzaleek behar bezala eginak diren eskaeren kopuruaren arabera izango da.

17.7. Amuarrain arrantzako esparruen inguruko herrietakotzat hartuko dira ondoko adminis-trazio batzar hauetakoren batean erroldatuta dauden arrantzaleak, ziurtagiri bidez hala frogatuz gero:

a) Berganzo esparruko ibaiertzeko arrantzaleak: Berganzo, Ocio, Santa Cruz del Fierro eta Zambrana.

b) Antoñana-Kanpezu esparruko ibaiertzeko arrantzaleak: Antoñana eta Santikurutze Kanpezu.

c) Kuartango esparruko ibaiertzeko arrantzaleak: Aprikano, Etxebarri-Kuartango, Jokano, Katadiano, Sendadiano, Urbina Eza, Uribarri-Kuartango eta Zuhatsu-Kuartango.

17.8. Inguruko herrietako arrantzaleek, beraientzat gordetako baimenak lortu nahi izanez gero, eskaerarekin batera errolda ziurtagiria aurkeztu beharko dute, eta arrantza zozketan lehenengo aldiz parte hartzen badute, NANaren fotokopia ere bai.

#### 18. ARTIKULUA. HARRAPAKETA ORRIAK

18.1. Esparruetan harrapatutako amuarrain arruntaren aleei eta kontrol eta deuseztatzeko ibai zatietan harrapatutako karramarro gorri eta karramarro seinaledunei buruzko datuak, haiek uretatik atera eta berehala idatzi beharko dira baimenarekin batera emandako harrapaketa orrian, eta une orotan otzaran, zakuan, e.a. gordetako harrapakinen kopuruak bat etorri beharko du harrapaketa orri horretan jasotako aleekin.

18.2. Gehienez ere 10 eguneko epean, baimena baliozkotzen denetik aurrera, harrapaketa orriak nahitaez bidali edo entregatu beharko dira, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Saileko Mendi Zerbitzuan, Eskalmendiko Desinfekzio Zentroan (funtzionamendu ordutegiaren barruan) karramarroa kontrolatu eta deuseztatzeko baimenak badira, edo Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez. Posta ziurtatuz edo aurkeztu direla ziurtatzen duen beste edozein modutan ere aurkeztu ahal izango dira orri horiek.

18.3. Harrapaketa orriak bidaltzea edo entregatzea nahitaezkoa izango da nahiz eta arrantza baimenak edo kontrol eta deuseztatze baimenak ez erabili edo batere harrapaketarik ez izan.

18.4. Harrapaketa orriak entregatzea ezinbestekoa da hurrengo denboraldiko zozketetan parte hartu ahal izateko.

#### 19. ARTIKULUA. ONTZITIK ARRANTZAN EGITEA

19.1. Baimentzen da ontzitik arrantzan egitea edozein modalitatetan Sobrón, Uribarri Ganboa eta Urrunagako urtegietan, betiere Ebroko Ur Konfederazioak nabigazio eta flotaziorako emandako baimena edukiz gero.

19.2. Honako elementu hauek izango dira ontziak: Ebroko Konfederazio Hidrografikoak holakotzat jo, erantzukizunpeko adierazpen bat eskatu, matrikula eman eta nabigazio eta flota-ziorako baimen ofiziala ematen dienak.

19.3. Hortaz, dira ontzizat joko, eta horietatik arrantzan egitea debekatuta dago, konfede-razio horrek bainuaren osagarritzat jotzen dituen elementuak; horien artean daude ahate edo tubo float izenekoak, windsurfeko oholak eta antzeko elementuak, edozein materialez egindako almadiak, koltxonetak, flotagailuak eta pneumatikoak eta abar, merkatuan saltzen direnetakoak nahiz etxean egindakoak izan.

19.4. Ur bazterrean norbait arrantzan dabilenean, debekatuta dago ontzitik arrantzan egitea, 50 metro zabaleko zerrenda batean, urtegiaren ertzetik erdialderantz kontaktuta.

19.5 Ur bazterretik arrantzan egitea debekatuta dagoen zonetan, debekatuta dago ontzitik arrantzan egitea 100 metro zabaleko zerrenda batean, debekatutako ur ertzetik urtegiaren erdialderantz kontaktuta.

## 20. ARTIKULUA. ZEBRA MUSKUILUAREKIN (*Dreissena polymorpha*) LOTURIKO BERRIAZKO NEURRIAK

20.1. Ikusi da badaudela zebra muskuiluak (*Dreissena polymorpha*) Uribarri Ganboa, Urrunaga eta Sobrongo urtegietan eta Ebro, Santa Engrazia, Undebe eta Zadorra ibaietan, eta gehiago zabaldu ez dadin, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak 2002ko irailaren 24an emandako ebazpenean zehaztutakoari (EAO, 2002ko azaroaren 12a, 271. zenbakia) eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak 2007ko maiatzaren 15ean emandako ebazpenean zehaztutakoari jarraituko zaio (EAO, 2007ko ekainaren 19a, 146. zenbakia), arrantzan erabilitako tresnak desinfektatu eta lehortzerakoan batez ere.

20.2. Zebra muskuiluen larbak beste ur batzuetara joan ez daitezten, Sobron, Uribarri Ganboa eta Urrunagako urtegietan eta Ebro, Santa Engrazia, Undabe eta Zadorra ibaietan egiten den arrantzak honako kautelazko mugak bete beharko ditu.

a) Arrantzan hasi aurretik, arrantzaleek botak, ibaian ibiltzeko ekipoak eta bestelako laguntza tresnak zebra muskuiluen aurka desinfektatu beharko dituzte. Arrantzalea izango da desinfekzioa egitearen arduraduna. Desinfekzioa egiteko, dosifikagailu bat erabiliko da, zeinetan honako proportzio hauek betetzen dituen soluzio bat sartuko den: 1,25 ml lixiba 10 litro ureko. Edonola ere, dosifikagailua eskura eta erabiltzeko moduan egon beharko da arrantzaleak arrantzan egin bitartean. Arrantza jarduera amaitutakoan, botak, ibaian ibiltzeko ekipoak eta laguntza tresnak (ateragailuak) desinfektatu behar dira, aurreko puntuan adierazitako jarraibideei jarraituz.

b) Sare-saskiak arriskudun elementu garrantzitsuak direnez gero zebra muskuiluaren hedapenaren aldetik, Zadorra ibaiko karramarro seinaleduna kontrolatu eta deuseztatzeko ibai zatirako baimena lortzen duten arrantzaleek Arabako Foru Aldundiak Eskalmendi Abeltzaintza Laborategian duen desinfekzio-gunera joan beharko dute. Laborategiak aipatutako zerbitzua emango du egun eta ordu hauetan:

Uztail eta abuztuan: astearte, ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan 15:00etik 22:00etara.

Iraila: astearte, ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan 15:00etik 21:00etara.

c) Arrantza egin den egun berean desinfektatu beharko dira sare-saskiak eta, horretarako, arrantzaleak aipatutako gunera heldu diren hurrenkera hartuko da kontuan. Instalazioak itxi aurretik ezin izan badira desinfekzio guztiak egin, arrantzarako materialak gordailuan geratuko dira bertan. Jabeak hurrengo egun balioudun berreskuratu ahalko ditu, instalazioaren lanorduetan.

Eginbehar hori ez betetzekotan, horretarako arrazoirik izan gabe, zehapen espediente egokia irekiko da.

## 21. ARTIKULUA. EZINDUENTZAKO LEHENTASUNEZKO ARRANTZA LEKUAK

Ezinduentzako lehentasunezko arrantza leku hauek ezartzen dira:

a) Urrunagako urtegiko zubi handia izenekoa, N-240 errepidean dagoena, A-623 errepidearekiko elkargunearen parean.

b) Uribarriko urtegiko ponpatze estazioaren aldea.

## 22. ARTIKULUA. UNEAN UNEKO NEURRIAK

Klima, biologia edo beste edozerekin loturiko gorabeherak direla-eta uretako faunan gerta litezkeen kalteei aurrea hartzeko, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak beretzat gordetzen du ahalmena foru agindu honetan araututako edozein puntu aldatu edo garatzeko, baita normalizatzeko egokiesten diren besteak ere.

## 23. ARTIKULUA. ARAU HAUSTEAK

Ibai arrantzaren arloan edozein arau hautsiz gero, aplikatuko dira bai 1942ko apirilaren 20ko Legea, ibai arrantzarena, bai apirilaren 13ko 1/1989 Legea, ehiza eta ibaietako arrantza arloko zenbait arau hauste administratiboren kalifikazioa aldatu eta dagozkien zehapenak handitzen dituenak.

**I. ERANSKINA**

## ARRANTZA BAIMENDUKO TARTEAK ARRO HIDROLOGIKOEN (AH) ARABERA

## 1. OMECILLOKO ARRO HIDROLOGIKOA.

1.1. AMUARRAINAK ARRANTZATZEKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

1.2. AMUARRAINAK HERIOTZA GABE ARRANTZATZEKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

## 1.3 KARRAMARRO SEINALEDUNA KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

- Omecillo ibaia: Uribarri Gaubeako zubitik A-2625 errepideko zubiraino (Espejo).
- Tumecillo ibaia: Karankako errotako zubitik Omecillo ibaiko bokaleraino, Villanañetik uretan behera.

## 1.4 SALMONIDOAK ARRANTZATZEKO IBAI ZATI LIBREA:

- Tumecillo ibaia: Angostoko santutegiko presatik Omecillo ibaiarekiko elkarguneraino.

## 1.5 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO IBAI ZATI LIBREA:

- Omecillo ibaia: A-2625 errepideko zubitik (Bergonda herria baino gorago) Ebro ibaiko bokaleraino.

## 1.6 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

- Omecillo ibaia: perka amerikarra (*Micropterus salmoides*) arrantzatu daiteke bakar-bakarrik A-2625 errepideko zubitik (Bergonda herria baino gorago) Ebro ibaiko bokaleraino.

## 2. BAIKO ARRO HIDROLOGIKOA.

2.1. AMUARRAINAK ARRANTZATZEKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

## 2.2. AMUARRAINAK HERIOTZA GABE ARRANTZATZEKO ESPARRUA:

- Baia ibaia: Katadianoko zubitik Aprikanoko zubiraino.

## 2.3 KARRAMARRO SEINALEDUNA KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

- Baia ibaia: Katadianoko zubitik Rivabellosako zubiraino.

## 2.4 SALMONIDOAK ARRANTZATZEKO IBAI ZATI LIBREA:

- Baia ibaia: Aprikanoko zubitik hasi eta Igaegitik San Migel herrira heltzeko zubiraino.

## 2.5 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO IBAI ZATI LIBREA:

- Baia ibaia: Igaegi herritik San Migel herrira heltzeko zubitik Burgosko probintziarekiko mugaraino.

## 2.6 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

- Baia ibaia: perka amerikarra (*Micropterus salmoides*) arrantzatu ahalko da soilik Igaegi herritik Burgos probintziarekiko mugaraino (San Migel herrira sartzeko zubitik).

## 3. ZADORRAKO ARRO HIDROLOGIKOA.

3.1. AMUARRAINAK ARRANTZATZEKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

- Zadorra ibaia (Dura): Uribarri Ganboako urtegiko presako koltxoiaren beheko mugatik Gamarra zubaraino (N-240). Ez dago baimenduta presako koltxoiaren egituratik bertatik arrantzan egitea.

### 3.2. AMUARRAINAK HERIOTZA GABE ARRANTZATZEKO ESPARRUA:

- Zadorra ibaia (Dura): Uribarri Ganboako urtegiko presako koltxoiaren beheko mugatik Gamarrako zubiraino (N-240). Ez dago baimenduta presako koltxoiaren egituratik bertatik arrantzan egitea.

### 3.3 KARRAMARRO SEINALEDUNA KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

- Zadorra ibaia: Uribarri Ganboako urtegiko presaren lastairatik Ihurreko zubiraino.

### 3.4 KARRAMARRO GORRIA KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

- Albinako urtegia: perimetro osoa.

### 3.5 SALMONIDOAK ARRANTZATZEKO IBAI ZATI LIBREAK:

- Zadorra ibaia: Gamarrako zubitik (N-240) Aztegietako zubiraino.
- Undebe ibaia: Arabako sarreratik, Ubidetik uretan behera, Urrunagako urtegiko bokaleraino.

- Barrundia ibaia: Aiduru edo Ugarte errekarerikiko elkargunetik (Barriatik uretan gora) Zadorra ibaiko bokaleraino.

- Albina ibaia: Albina urtegiko presatik Urrunagako urtegiko bokaleraino.

- Ihuda ibaia: Partzela bideko zubitik, Urarte herrian, Burgosko probintziarekiko mugaraino (Trebiñuko Konderrria) eta Trebiñuko Konderrriko irteeratik Berantevillako presaraino.

- Zubialde-Zalla ibaia: A-3608 errepideko zubitik (Larrinoan) Zadorrako bokaleraino.

### 3.6 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO IBAI ZATI LIBREAK:

- Albinako urtegia: perimetro osoa.

- Ulibarri Ganboako urtegia: perimetro osoa, Urizarko iparraldeko edo kanpoko dike izenekoaren bi alboak barne, arrantza debekatuta duten gunek izan ezik:

- Garaioeko eta Landako bainu lekuak eta Uribarri Ganboako hilerriaren ondoko hondartza izan ezik.

- Oreningo uhartearen perimetro osoa.

- Erlojuaren orratzen kontrako norabidean, urtegiaren hegoaldeko senadia eta Urizar base-rritik ur gaineko pasabidearen bukaerako muturrerainoko (Garaioeko probintzia parkearen beste aldean) ur bazter guztia barnean hartzen dituen ibai zatia.

- Club Náutico Aldaieta: vmendebaldetik ekialderako norabidean, hau guztia barnean hartzen duen ur bazter zatia: ontziak atrakatzeko zementuzko arrapalaren senaditik (UTM koordinatuak: 30T533229.4752532 - Datum ERTS89) klub horretako ur gaineko pantalanaren aurrean dagoen senadiaren bukaeraraino (UTM koordinatuak: 30T533601.4752703 - Datum ERTS89).

- Urrunagako urtegia: perimetro osoa.

- Dulantzi ibaia: Oreitia herriko zubitik Zadorra ibaiarekiko elkarguneraino.

- Ihuda ibaia: Berantevillako presatik Zadorra ibaiarekiko elkarguneraino.

- San Petri erreka: Ollarieta-Gopegi A-3608 errepideko zubitik Urrunaga urtegiko bokaleraino.

- Santa Engrazia ibaia: Urrunagako urtegitik Amarita herrira Erretanatik sartzeko errepideko zubiraino.

- Zadorra ibaia:

- A-3016 errepideko zubitik (Agurainetik Erdoñara) Uribarri Ganboako urtegiko bokaleraino.

- Aztegietako zubitik "Los Cañales" izeneko oinezkoentzako pasabidearen aurrietaraino.
- Sorribasko presatik Ebro ibaiko bokaleraino, Arabatik pasatzen den ibilgu osoan zehar.

### 3.7 KIROL AGERTOKIA:

- Zadorra ibaia: "Los Cañales" izeneko oinezkoentzako pasabidearen aurrietatik Sorribasko presaraino.

### 3.8 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

- Albina, Uribarri Ganboa eta Urrunagako urtegiak: alburnoa (*Alburnus alburnus*), lutxoa (*Esox lucius*), karpa (*Cyprinus carpio*) eta perka amerikarra (*Micropterus salmoides*) arrantzatu daitezke haien perimetro guztietan, Uribarri Ganboako urtegiaren zati debekatuetan izan ezik.
- Dulantzi ibaia: alburnoa (*Alburnus alburnus*) eta lutxoa (*Esox lucius*) arrantzatu ahalko dira Oreitiako zubitik Zadorra ibaiarekiko elkarguneraino.
- Zadorra ibaia: alburnoa (*Alburnus alburnus*), lutxoa (*Esox lucius*), perka amerikarra (*Micropterus salmoides*) eta amuarrain ostadarra (*Oncorhynchus mykiss*) arrantzatu daitezke Uribarri Ganboako presako koltxotik Ebro ibaiko bokaleraino bakarrik.

Hala ere, Durako arrantza esparruarena den ibai zati horren zatian -Uribarri Ganboako presako koltxoitik N-240 errepideko Gamarrako zubiraino-, eremu horretarako baimena dutenek bakarrik egin dezakete arrantzan.

## 4. ARAKILGO ARRO HIDROLOGIKOA.

4.1. AMUARRAINAK ARRANTZATZEKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

4.2. AMUARRAINAK HERIKOTZA GABE ARRANTZATZEKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

4.3 KARRAMARROAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA: ez dago eskuragarri AH honetan.

### 4.4 SALMONIDOAK ARRANTZATZEKO IBAI ZATI LIBREA:

- Araia edo Zirauntza ibaia: Iduiako auzoko zubitik Leze errekaen elkarguneraino.

4.5 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO IBAI ZATI LIBREA: ez dago eskuragarri AH honetan.

4.6 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA: ez dago eskuragarri AH honetan.

## 5. INGLARESKO ARRO HIDROLOGIKOA.

### 5.1. AMUARRAINAK ARRANTZATZEKO ESPARRUA:

- Inglares ibaia (Berganzo): Berganzoko zubitik Ebro ibaiarekiko elkarguneraino.

5.2. AMUARRAINAK HERIOTZA GABE ARRANTZATZEKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

5.3 KARRAMARROAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA: ez dago eskuragarri AH honetan.

### 5.4 SALMONIDOAK ARRANTZATZEKO IBAI ZATI LIBREA:

- Inglares ibaia: A-2124 eskualde errepideko zubitik, Urizaharreko herrigunearen inguruan, Berganzoko zubiraino.

5.5 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO IBAI ZATI LIBREA: no disponible en esta C. H.

5.6 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA: ez dago eskuragarri AH honetan.

## 6. EGAKO ARRO HIDROLOGIKOA.

6.1. AMUARRAINAK ARRANTZATZEKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

6.2. AMUARRAINAK HERIOTZA GABE ARRANTZATZEKO ESPARRUA:

- Ega/Berron ibaiak (Antoñana-Kanpezu): Sabando erreka bokaletik Santikurutze Kanpezuko herrira sartzeko zubiraino (A-132 errepideak eta Oteo eta Haranerantz doan A-2128 errepideak bat egiten duten tokian).

6.3 KARRAMARRO SEINALEDUNA KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

- Berron ibaia: A-132 errepideko zubitik, Aaturitik uretan behera (Asfaltos Maeztu), Ega ibaia-erekiko elkarguneraino.
- Ega ibaia: Berron ibaiko bokaletik Nafarroarekiko mugaraino.

6.4 SALMONIDOAK ARRANTZATZEKO IBAI ZATI LIBREAK:

- Berron ibaia:
  - A-132 errepideko zubitik, Birgaragoien, errepide horretako zubiraino, Maeztuko igerilekuetatik uretan behera.
  - Aaturiko presatik "Puentelaya" izeneko parajeraino.
  - Antoñanako errotako presatik Sabando ibaiko bokaleraino.
- Ega ibaia:
  - Nafarroako Foru Erkidegoan ibili ondoren Araban sartzetik Berron ibaiaren elkarguneraino.
  - Antoñana-Kanpezuko esparruaren bukaeratik (Santikurutze Kanpezura sartzeko zubia, A-132 errepideak eta Oteo eta Haranerantz doan A-2128 errepideak bat egiten duten tokian dagoena) Nafarroako mugaraino.

- Izki ibaia: Izkiko parke naturaletik 250 metrora dagoen ibai gaineko zubitik (UTM koordenadak: 0548168/4725442), Berron ibaiaren ahorraino.

- Musitu ibaia: Zekuianoko errotatik Berron ibaiaren ahorraino.

6.5 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO IBAI ZATI LIBREA: ez dago eskuragarri AH honetan.

6.6 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

- Ega ibaia: Amuarrain ostadarra (*Oncorhynchus mykiss*) arrantzatu daiteke Antoñana-Kanpezuko esparruaren bukaeratik (Santikurutze Kanpezuko herrira sartzeko zubia, A-132 errepideak eta Oteo eta Haranerantz doan A-2128 errepideak bat egiten duten tokian dagoena) Nafarroako mugaraino.

## 7. NERBIOI-IBAIZABALGO ARRO HIDROLOGIKOA.

7.1. AMUARRAINAK ARRANTZATZEKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

7.2. AMUARRAINAK HERIOTZA GABE ARRANTZATZEKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

7.3 KARRAMARROAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA: ez dago eskuragarri AH honetan.

7.4 SALMONIDOAK ARRANTZATZEKO IBAI ZATI LIBREA:

- Altube ibaia: A-2522 errepideko zubitik (Urkillo dermioan) Bizkaiarekiko mugaraino.

## 7.5 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO IBAI ZATI LIBREAK:

- Maroñoko urtegia: perimetro osoa.
- Olarteko urtegia: perimetro osoa.
- Izoria ibaia: Maroñoko urtegiko irteeratik Nerbioi ibaiko bokaleraino.
- Nerbioi ibaia: Araban duen sarreratik, Saratxotik uretan gora, Bizkaiarekiko mugaraino.

## 7.6 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

- Maroñoko urtegia: perimetro osoan arrantzatu daitezke lutxo (*Esox lucius*) eta black-bassa (*Micropterus salmoides*)

## 8. CADAGUA-IBAIZABALGO ARRO HIDROLOGIKOA.

8.1. AMUARRAINAK ARRANTZATZEKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

8.2. AMUARRAINAK HERIOTZA GABE ARRANTZATZEKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

8.3 KARRAMARROAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA: ez dago eskuragarri AH honetan.

## 8.4 SALMONIDOAK ARRANTZATZEKO IBAI ZATI LIBREA:

- Ibaizabal ibaia: A-624 errepideko zubitik Bizkaiarekiko mugaraino.

## 8.5 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO IBAI ZATI LIBREAK:

- Artziniega ibaia: Aiaga edo Soxo erreka bokaletik Bizkaiarekiko mugaraino.
- Okondo edo Izalde ibaia: A-624 errepideko zubitik Bizkaiarekiko mugaraino.

8.6 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA: ez dago eskuragarri AH honetan.

## 9. DEBAKO ARRO HIDROLOGIKOA.

9.1. AMUARRAINAK ARRANTZATZEKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

9.2. AMUARRAINAK HERIOTZA GABE ARRANTZATZEKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

9.3 KARRAMARROAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA: ez dago eskuragarri AH honetan.

## 9.4 SALMONIDOAK ARRANTZATZEKO IBAI ZATI LIBREA:

- Aramaio ibaia: Kukuko presatik Gipuzkoarekiko probintzia mugaraino.

9.5 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO IBAI ZATI LIBREAK: ez dago eskuragarri AH honetan.

9.6 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA: ez dago eskuragarri AH honetan.

## 10. EBROKO ARRO HIDROLOGIKOA.

10.1. AMUARRAINAK ARRANTZATZEKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

10.2. AMUARRAINAK HERIOTZA GABE ARRANTZATZEKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

10.3 KARRAMARROAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA: ez dago eskuragarri AH honetan.

10.4 SALMONIDOAK ARRANTZATZEKO IBAI ZATI LIBREA: ez dago eskuragarri AH honetan.

10.5 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO IBAI ZATI LIBREAK:

- Sobrongo urtegia: Araban duen perimetro osoan.
- Ebro ibaia: Araban egiten duen ibilbide osoan.

10.6 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

- Sobrongo urtegia: alburnoa (*Alburnus alburnus*), lutxoa (*Esox lucius*) eta perka amerikarra (*Micropterus salmoides*) arrantzatu daitezke Araban duen perimetro osoan.
- Ebro ibaia: alburnoa (*Alburnus alburnus*), lutxoa (*Esox lucius*) eta perka amerikarra (*Micropterus salmoides*) arrantzatu daitezke Araban egiten duen ibilbide osoan.

**II. ERANSKINA**  
**AMUARRAINAK ARRANTZATZEKO ESPARRUA**

**1. AMUARRAINEN ARRANTZA ESPARRUA.**

IZENA	IBAIA	GOIALDEKO MUGA	BEHEALDEKO MUGA	LUZERA (km)	BAIMENAK EGUNEKO	ALDI BALIODUNA	EGUN BALIODUNAK	BEITAK	KUPOA
Berganzo	Inglares	Berganzoko zubia	Ebro ibaiarekiko elkargunea	8,0	4	2020/03/19tik 2020/06/30era	al., ol., lr., ig., jai	Garrangarik gabeko amu bakarra duten artifizialak bakarrik	2

**2. HERIOTZA GABEKO AMUARRAINAK ARRANTZATZEKO ESPARRUAK.**

IZENA	IBAIA	GOIALDEKO MUGA	BEHEALDEKO MUGA	LUZERA (km)	BAIMENAK EGUNEKO	ALDI BALIODUNA	EGUN BALIODUNAK	BEITAK	KUPOA
Dura	Zadorra	Uribarri Ganboa presako lastaira	Gamarako zubia (N-240)	8,2	4	2020/03/19tik 2020/06/30ra	al., az., os., ol., l., ig., jai.	Garrangarik gabeko amu bakarra duten artifizialak bakarrik	0
Antofiana-Kanpezu	Ega	Sabando errekaaren bokalea	Santikurutze Kanpezura sartzeko zubia (A-132 eta A-2128 errepedeen elkargunea)	6,0	3		al., az., os., ol., l., ig., jai.		
Kuartango	Baia	Katadianoko zubia	Aprikanoko zubia	11,6	4	2020/04/15etik 2020/06/15era			

III. ERANSKINA  
KARRAMARRO SEINALEDUNA ETA GORRIA KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIAK

ESPEZIEA	IBAIA/ URTEGIA	GOIALDEKO MUGA	BEHEALDEKO MUGA	LUZERA (km)	BAIMENAK EGUNEKO	BAIMENAK GUZTIRA	KONTROL_ ALDIA	KONTROL EGUNAK
Pazifikoko karramarroa	Omeçillo/ Tumecillo	Karankako (Tumecillo) errotako zubia eta Uribarri Gaubeako (Omeçillo) zubia	A-2625 errepidetako zubia (Espejo)	13,7	50	2.650	2020/07/02tik 2020/09/30era	ar., os., l., ig., jai
			Marubaiko zubia (Katadiano)	25,3	55	2.915		
	Berron/Ega	A-132 errepidetako zubia, Atauritik uretan beheara (Asfaltos de MaetzU)	14,0	50	2.650			
			Zadorra	Uribarri Ganboa presako lastaira	11,3	50		
Karramarro gorria	Albina	Perimetro osoa		8,7	50	2.650		